

 <b>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA</b> P4800300H	<b>IL0043</b>	<b>Biztanleen Udal Errolda: Izen emate desegokiarengatiko baja</b>
---	---------------	--

## ZER DA? ZERTARAKO DA?

Dagoeneko etxebizitza horretan bizi ez diren pertsonak inskribatuta dauden etxebizitza baten erabilera duen pertsonak egindako eskaria.

## NORK ESKA DEZAKE?

Etxebizitzaren erabilera duen pertsonak (jabeak, errentariak, gozamendunak...)

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E065 Oker inskribatuta daudenen baja eskaera](#)
- Izen emate desegokiarengatiko baja eskaria
- Eskatzailearen jatorrizko NAN, NIE edo Pasaporteak.

## NON ESKATZEN DA?

**Aurrez aurre:**

- [Udaletxea](#)  
Udaletxea  
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO  
Ordutegia: 7:30 - 15:00

## ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez da inolako tasarik edo prezio publikorik ordaindu beharko.

## PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1

---

## ARAUDI APLIKAGARRIA

- [15/1999 Legea, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa](#)
- [7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena](#) 15.1. art.
- [1690/86 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia onartzen duena eta Lurralde Mugen Araudia](#) 53 eta hurrengoak
- [14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20koa, 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena.](#)
- [Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, udal erroldari dagokionean Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena.](#)
- [Abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Entitateen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Erregelamendua aldatzen duena.](#)
- [2015eko martxoaren 16ko ebazpena, Idazkariordetzarena, udalei udal erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkien 2015eko urtarrilaren 30eko ebazpena argitaratzen duena](#)

## ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu.
2. Erregistratu, eskaneatu eta interesatuari kopia eman.

### Izen emate desegokiarengatiko baja

1. Hasieraren txostena eta Alkatetza Dekretua ematen da.
2. Interesatuei jakinarazi.
3. Jakinaraztea ezinezkoa bada, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarkien Ohoan argitaratuko da.
4. Espediente osoa bidaltzen da, baita alegazioak ere, egonez gero, Erroldatze Kontseilura, txostena eman dezan
5. Txostena aldekoa bada, Izen emate desegokiarengatiko baja Dekretua emango da.
6. Interesatuei jakinarazi
7. Jakinaraztea ezinezkoa bada, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarkien Ohoan argitaratuko da.
8. Bajaren inskripzioa erroldan.

## NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

## IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Zerbitzu Orokorrak - Idazkaritza

## OHARRAK

### Informazio gehiago

[estatistika@amorebieta.eus](mailto:estatistika@amorebieta.eus)

Udala: 94.630.00.02